



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 16a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko bost kideak hautatzeko arauak (6. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-121-A errepidea hobetzeko lanen exekuzioari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kon-tseilariaren erantzuna:

N-121-A errepideko lanak hiru tarte ezberdinetan daude banatuak:

TARTEA	Luzera	Aurrekontua	Hasiera-data	Amaiera-data
Sunbilla-Etxalar	4.150	21.941.516,96	07/04/12	09/03/30
Etxalar-Bera	3.720	21.214.728,11	07/04/12	09/03/30
Bera-Endarlatsa	2.538	18.133.671,10	07/07/17	09/06/30

Bi lehen tarteak esleitu zaizkio Ecay y Andueza, S.L., Ideconsa S.A. eta OHL S.A. enpresek osatutako aldi baterako batasunari, eta hirugarrena, berriz, Construcciones Mariezcurrena, S.L. enpresari.

Lanen xedea da egungo N-121-A errepidea egokitzea eta hobetzea. Ho-rrretarako, errepide horri emanen zaizkio Iruña eta lan horien hasieragunea ar-teko ardatz osoan dauden ezaugarri geometriko eta teknikoak. Hona, laburki, lan horiek zein diren:

- Egungo plataforma handitzea.
- Kurbadura-erradioak hobetzea.
- Hirugarren erreia eraikitzea ibilgailu astunen-tzat.
- Luzerako profila hobetzea.
- Saihesbide-tarteak egitea.

– Lotuneak eraikitzea.

Kontuan izanik, batetik, eremu horretako orografia eta topografia (ibar sa-kon eta estua, Bidasoa ibaia ardatz duela), egin beharreko lanen garrantzia, bes-tetik (bidezubiak, tunelak, lur-erazketa handiak, lubetak eta abar), eta lanak egungo errepidetik gertu daudela –errepidean bertan egiten ez direnean–, sai-hestezina da lan horiek errepideari eta trafikoari eragitea.

Lan horiek egungo errepideari zuzenean eragiten diotelako (estribuen hondeaketa-lanak, bidezubi-pilareak, zutabeak eta harlauzak jartzea), nahiz errepidetik gertu egoteagatik trafikoaren segurtasunean eragin dezaketelako (materiala erortzea errepidearen gainean dauden indusketatik, eztandak, lurrari eusteko harri-lubetak eraikitzea eta abar), neurriak hartu behar izan dira trafiko murritzeko eta kontrolatzeko, lanak segurtasun osoz egite aldera.

Lanek trafikoari eragindako arazoak –neurri batean edo bestean eta lanek irauten duten bitartean– ezberdinak izan daitezke:

– Txandakako zirkulazioa ezartzea seinalegileen bidez, errepidea estu-tzen delako.

– Txandakako zirkulazioa ezartzea semaforoen bidez.

– Trafikoa bi norabideetan moztea denbora-tarte laburrean (minutu ba-tzuk).

– Trafikoa bi norabideetan moztea denbora-tarte luzean (ordu erdi baino gehiago).

Astero aurreikusten dira lanek errepideari eraginen dizkioten arazoak, eta informazio hori hemen jartzen da:

Nafarroako Gobernuaren web orrian: www.navarra.es

Nafarroako errepideei buruzko informazio telefonoan: 900400100

1.- Lanen aurrerapen maila, 2008ko apirilaren 30ean, doitzen al da aurreikusitako plangintzara?

Bi lehen tarteetan (Sunbilla-Etxalar eta Etxalar-Bera) desdoikuntzak daude planifikatutakoaren eta egindako lanen artean. Hirugarren tarteetan berriz (Bera-Endarlatsa), ez dago desdoikuntzarik.

2.- 2008ko apirilaren 30ean, ba al da alderik exekutatu den obraren eta plangintzan exekutatu ta egonen zela aurreikusten zenaren artean?

Bi lehen tarteetan, 2008ko apirilaren 30ean, aldea dago exekutatu den obraren eta plangintzan aurreikusten zenaren artean; kalkulatu da aldea esleipen-aurrekontuaren %15-20koa dela.

Hirugarren tarteetan ez dago desdoikuntzarik.

3.- Lanen exekuzioa ez bada planifikatutakora doitzen, berriro planifikatu behar al dira obraren exekuzioa eta amaiera? Lanen exekuzioaren aurrekon-tua aldatu behar al da?

Obra baten plangintza prozesu dinamikoa da, eta obraren bilakaera erreala-ren arabera aldatu, eguneratu eta egokitzen da. Hiru tarteetatik bakar batean ere ez da aldatu kontratuan ezarritako epea. Aldaketarik ere ez da egin horien aurrekon-tuetan.

4.- Lanen exekuzioa ez baldin bada 2008ko apirilaren 30ean doitzen obraren plangintzan ezarritako epeetara, horretarako arrazoiak azal ditza-kezu?

Lehen tarteetako lanaren exekuzioa planifikatutakora ez doitzeko arrazoiak, fun-tsean, lotuta daude enpresen aldi baterako batasunaren antolakuntzarekin. En-presa horietako lur-azpikontratatistak kontratua desegin zuen, eta horren ondorioz, lurrak mugitzeko lanak gelditu edo mantsotu dira (indusketak, lubetak, zaborte-giak eta abar), harik eta beste enpresa batekin ordeztu duten arte. Nolanahi ere, lanak planifikatutakora ez doitzearen arrazoiak ez dute zerikusirik administrazioa-rekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bate-ginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako Gobernuak etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak iparraldean etxebizitza, dotazio eta industria erabilerarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honek ondo baino hobeto eza-gutzen du Ramírez jaunak aipaturiko arazoa, eta bere eguneroko lanean, auzi hauek agerian jartzen dituzten espedienteak kudeatzean, ahalegin handia egiten du ukitutako administrazioak (tokikoa, Ingurumenekoa, Konfederazioak) koordinatzeko eta kontzientziatzeko. Hala adierazten du horien guztien dokumentazio administratiboak, edo zuzenean, udal askotako arduradun politikoei (Baztan, Doneztebe, Leitza, Lekunberri, Bera, Goizueta eta beste batzuk).

Uneotan, departamentu honen ekarpena da izapidetzen ari diren Lurraldearen Antolamenduko Planetan egiten den lana (www.potnavarra.com), non auzi hori jorratu eta zehaztu den, diagnostikoa eta eztabaida publikoa eginez. Espero dugu plan horietatik sortzen diren proposamenek erakundeen arteko eta diziplinen arteko adostasuna lortzea, eta bateratu ahal izatea garapenerako beharrak, ingurumenarekiko errespetua eta ondatsun eta pertsonen babesa.

Beti ere, gehitu behar da Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ikuspuntua bat datorrela Ramírez jaunak bere galderaren hasieran adierazi duenarekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak erabilera ezberdinetarako lurzorua gaitzeko hartu behar dituen neurriei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Planteatutako gaia Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eskumenetatik kanpo dago, lurzoru mota eta lurraldearen erabilera ezberdinak katalogatzeko eskumenari baitagokio.

Nolanahi ere, eta erakundeen arteko lankidetzaren mesedetan, egindako galderari erantzuteko informazioa ematen da, ondoko salbuespenekin:

– Emandako datuak, nola ez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak dituen eskumenei dagozkienak dira.

– Galderan Nafarroako “iparraldea” aipatzeak zaildu egiten du erantzun bat ematea, galderak izaera orokorra duelako eta ez delako doitzen Nafarroako Foru Komunitatean dauden eremu ofizialek.

Industriarako lurzorua gaitzen duten bitartekoei dagokienez, garrantzitsuak direlako, aipa ditzakegu:

– Lekunberri: industrialde berri bat egin da, gerora handitu behar izan dena, zegoen eskariari erantzuteko.

– Burgi: azken fasean dago Erronkari Ibarreko Jarduera Ekonomikoen Eremua.

– Irunberri: lankidetzaren hitzarmena sinatu da udalarekin industrialde berria egiteko.

– Sakana: Nafarroako Gobernuak duela gutxi onetsi du behin betikoz Altsasu-Urdiango Jarduera Ekonomikoen Eremua, 900.000 metro koadro baino gehiagoko azalera izanen duena.

Baztan-Bidasoa eremuari dagokionez –galderaren xede izan litekeena–, nabarmena da zer zailtasun dagoen industrialde bat eraikitzeko behar adina lurzoru topatzeko, baldintza orografikoak direla-eta. Nolanahi ere, departamentuak bilerak egiten ditu eskualdeko udal eta enpresekin, eta

espero du etorkizun batean horrelako jarduketak egin ahal izatea Baztan-Bidasoa eskualdean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko bost kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legeak bere 9.2. a) artikuluan xedatzen duela Kontseiluko bost kide Nafarroako Parlamentuak gehiengo osoz hautatuko dituela.

Ikusirik Zerbitzu Juridikoen txostena, Eledunen Batzarrekin bat eta Erregelamenduko 37.1.9 artikuluari jarraituz, honakoa ERABAKI DUGU:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko bost kideak hautatzeko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak bost pertsona hautatuko ditu, bere ordezkari gisa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide izan daitezten, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

2. Bete beharreko postuak zenbat diren, parlamentu-talde bakoitzak edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak beste horrenbeste izangai aurkeztu ahaliko ditu, aipaturiko foru legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean aukeratuta.

3. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki aurkeztuko dituzte hautagaiak parlamentu-taldeen, eta, idazki horretan, proposatutako hautagaiek emandako onarpena jaso beharko da. Proposatutako hautagaiek aipaturiko foru legeko 14. artikuluan aipatzen den bateraezintasunik ez dutela erabaki ahal izateko, proposamen-idazkiei aipatu bateraezintasunik ez dutelako aitorpena edo egiaztatzea erantsiko zaie, hautagaiek egina.

4. Parlamentu-taldeen edo foru parlamentarien elkarteek Nafarroako Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea datorren irailaren 24ko 12:00etan bukatuko da.

5. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaiek baldintzak betetzen ote dituzten erabakiko du Mahaiak, eta ondoren, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Kontseiluko bost kideak Osoko Bilkuran eta isilpeko bozketaren bidez hautatuko dira.

7. Txartelen bidez eginen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste horrenbeste izen jarri ahaliko ditu txartelean.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituzten bost hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du; betiere, hautagai bakoitzak Legebiltzarreko kideen botoen gehiengo osoa lortu badu.

9. Berdinketarik badago eta horrek Parlamentuaren proposamenean eragiten badu, berdinketak boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebaztuko dira. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hurrenez hurren bozketak egiten dira boto kopuru bera duten hautagaien artean, berdinketa desegin arte.

10. Lehen bozketan eta 8. arauan ezarritako baldintzei jarraikiz bost postu horiek betetzen ez badira, hurrenez hurren bozketak egiten dira bete gabe geratutako postu horientzat. Hurrenez hurren bozketa horietan, bete beharreko postuak zenbat diren beste horrenbeste hautagai sartu ahal izanen dira txartelean. Lehendakariak, egoerak hartara behartuz gero, bozketak eten ahal izanen ditu arrazoizko epe batean. Hurrenez hurren bozketa egin ostean hautagai guztiak edo horietakoren bat hautatu gabe badago, aukeratzeko prozesu hori bukatutzat joko da, eta prozesu berri bati emanen zaio hasiera hautatzeko geratu diren postu huts horiek betetzeko.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	